

ERTZAINNTZA

ELA



Ezinbestekoa da Ertzaintzan ELA sendo bat izatea

ELA- Ertzaintzako kide garenok, zuri ertzain, hausnarketa bat helarazi nahi dizugu. Helburua honako hau da: gure irakurketa zurekin elkarbanatzea, eta, bat egiten baduzu, elkarrekin egoera aldatzeko zer egin beharko genukeen adostea.

Gure ustez, urtez urte gure lan eta bizi baldintzak txartuz dijoazte, eta horren erantzule nagusia Eusko jaurlaritza izanik, zintzotasun osoz, uste dugu, ertzaintza barruan dauden sindikatu korporatiboak horren erantzule ere badirela ere.



LAN ETA BIZI BALDINTZEN GAINBERA


Lan eta bizi baldintzak txartu egin direla esaten dugunean zer esan nahi dugu?

1.-Lan baldintzak Orain dela bi hamarkada Ertzaintzako lan baldintzak eredu garri ziren poliziaren esparruan. Eredugarri ez bakarrik gure herrian, Euskal herrian edo Estatu Espainiarrean baita ere Europa mailan.

Gaur egun, 20 urte beranduago, Eusko Jaurlaritzaren murrizketa politikek eta sindikatu korporatiboek jokatu duten paperak lan baldintzen gainbehera izugarria ekarri dute.

1.1.- Soldatak

Murrizketa politikak orokortuak izanik, ELA indartsu den instituzioetan murrizketa horiek ez dira ezarri, ez hori bakarrik, lan baldintzen hobekuntzak egon dira. Soldatari dagokionez, udaltzainen eta ertzainen arteko desberdintasunak areagotzen ari dira. Hemen hiru adibide:



Ertzaintzako agentea, aintzinasunik gabea: 39.714,58€
Gauekotasuna eta jaiegunak barneratuta

Gasteiz: 2.714,57€ gordin 14 paga: 38.003,98€*
*Gauekotasuna eta jaiegunak aparte.

Bilbao: 14 paga: 43.895,10€
Gauekotasuna eta jaiegunak barneratuta. - 4.181 €

Laudio: 14 pagas 3019 x14 : 42.266€
Gauekotasuna eta jaiegunak barneratuta. - 2.552 €

1.2.-Plantilla: 8.000 tik oso urrun

Plantilla beharrak izugarriak dira, 8.000 ertzainetik gero eta urrunago gaude. Plantilla exkaxia honek ekartzen dituen ondorioak oso larriak dira. Bai guretzako, ertzaintzako eta baita ematen dugun zerbitzuarentzako. Plantilla exkaxia honek, mugikortasun geografikoan, funtzionalean, lan osasunean, lan egiteko moduan etab ondorioak ditu.

2017 an* 7.826 ertzain
2021 an* 7.597 ertzain
- 403 (-229)

*Hautes errodaren datuak

1.3.- Bestelako murrizketak

- Itzarri, jubilazio primak etab murriztuta.



1.4.- Garapen profesionalarekin gertatutakoa.

Adibide garbia.

Lan baldintza horien txartzearen adibide garbia izan da, garapen profesionalarean negoziaketa. **Hauek dira Segurtasun Saila Ertzaintzarentzat adostutako eredu profesionalarekin pozik egoteko arrazoietakoz batzuk:**

ZUREKIN GOAZ
con todas nuestras fuerzas

ELA Ertzaintza

1.- Produktibitate OSAGARRIA delako, **eta ez Soldata FINKOA**, (ELAk negoziazioan behin eta berriz eskatu bezela eta Osakidetzako langileena den bezelakoa).

2.- Kobratu ahal izateko, urtero ebaluazio bat gainditu beharko duzulako, eta ebaluazio horretan helburuak lortzea eta absentismoa lehentasunezkoak izango direlako.

3.-Ertzainen sumisioa bilatzen duelako.

4.- Osakidetzarekiko aurreztu den diru-kopuruagatik.

Adibidea: 25 urteko antzinatasuna eta C taldekoa den euskal funtzio publikoko funtzionariaren aldeko desberdintasun ekonomikoa, ertzainekiko.

URTEA	ERTZAINZA	OSAKIDETZA
2019	927,50	6.103,42
2020	1.855	6.103,42
2021	2.782,50	6.103,42
2022	3.710	6.103,42
TOTAL	9.275	24.413,68

Hau da, 2019,20,21 eta 22 urteetan Ertzaintzan lan egiten duen pertsona batek, Osakidetzan lan egiten duen batek baino **15.138,68 euro gutxiago kobratuko ditu.**

Orain badakizue Segurtasun Saila zergaitik dagoen hain pozik gure karrerarekin.

2.- Pandemia , Ertzaintza:

Beste eredu polizial bat behar dugu !!

Lehen alarma-adierazpenetik 18 hilabete baino gehiago igaro direnean, eta lehen asteko txaloak igarota, bizitzen ari garen salbuespen-egoera luzatzen ari da.

Egoera honek gure eguneroko lanei erantsitako lan-kargak dakarzkigu ertzainoi; izan ere, segurtasunarekin, osasun publikoarekin, mugikortasunarekin, kontsumoarekin eta abarrekin lotutako neurriak – Askotan aldakorrak – Betetzen direla zaindu behar dugu, eta gizarte estresatu batean egiten dugu, ziurgabetasun handiaren eta arrisku psiko-sozial izugarrien mende dagoen gizarte batean. Egoera sozio-ekonomikotik eratorritako arazok bere horretan jarraitzen dute eta larriagotu egiten dira; izan ere, egoera horretan, langile asko protestak areagotzera behartuta daude, manifestatzeko eta grebak egiteko eskubidea erabiliz.

Testuinguru delikatu horretan, Ertzaintzaren jarduera sozialki neurtzen eta legitimatzen da, egoera kritiko horiei erantzuteko moduaren arabera.

ELA-Ertzaintzak beti defendatu izan du polizia zibilaren eredu bat. Eta hitz horretan, zibilean, bi esanahi oso zehatz txertatu ditugu beti: ezer baino lehen, herritarren zerbitzura lan egiten dugun langileak garela; eta ez dugula kolektibo bereizi bat izan nahi, baizik eta pertsona integratuak, eta, era berean, gure gizartearen aniztasuna ordezkatzen dutenak. Zuk ere eredu honekin bat egiten duzula uste dugu.

Benetan uste dugu Sailaren erabakiek eta alderdi politikoen edo sindikatu korporatiboen jardura edo adierazpenek ez dutela batere laguntzen hain oinarrizkoa den aldarrikapen batean. Aitzitik, segregatuagoa, bereiziagoa eta babestu beharreko herriarekiko sentikortasun gutxiagokoa den polizia-eredua finkatzen laguntzen dute.

Polizia izatea erronka bat da egunerokotasunean, eta are handiagoa pandemia honetan. Hilabete hauetan gertatu denak oso erronka argia dakarkie eragile politiko eta sozialei eta erakunde eta botere publikoei: premiazkoa da polizia-ereduari buruzko eztabaida lasai eta sakona, eta premiazkoa da zerbitzu publikoak behar bezala hornitzea. Guk eztabaida hau egin nahi dugu. Behar dugu.

ZUREKIN GOAZ
con todas nuestras fuerzas

3.- Eraitza ezberdinak bilatzen badituzu, ez beti gauza bera egin

ELA osatzen duten 100.000 afiliatuek finantziatzen dute sindikatua, diru sarreraren % 92,3 afiliazio-kuotatik eratorrikoa da. Horixe da sindikatu batek bere inpedendentsia bermatzeko duen modu bakarra. ELAren indarra horretan oinarritzen da, alegia, ez duela inongo menpekotasun politikorik. Era berean, ELA afiliatzea erabaki duten milaka lagunen babesari esker, sindikatu indartsu eta alternatiboa da. Afiliazioa

sindikatuaren autonomia politikoa bermatzeko tresna da. Horrek indarberritzen gaitu. Hori da modu bakarra gizarte justuago baten alde egiteko.

Gure herriko erakunde sindikal, sozial eta politikorik indartsuena da; ordezkari sindikalari dagokionez, % 40tik gorako ordezkari dugu maila orokorrean, eta % 43 baino gehiago sektore publikoan.

Benetan uste dugu gaur egun autonomiarik ezak, korporatibismo amorratuak eta Ertzaintzako ordezkari batzuen borrokarako borondate ezak oso ondorio kaltegarriak ekarri dizkiotela Ertzaintzari azken urteotan.

ELA-Ertzaintzak ez dizu opariekin erosiko, baina ziur ez zaituela salduko. ELA ertzaintza borrokarako eta konpromisorako bermea da.

ELA ERTZAINZA



ZUREKIN GOAZ
con todas nuestras fuerzas